



Zortzigarren zortzimilakoa lortu du Edurne Pasabanek, Nanga Parbat (8.125 m)

TOLOSA ▶ Hainbat saiakera egin ondoren, atzo goizean lortu zuen helburua tolosarrak

MARKA ▶ Munduan zortzimilako gehien igo dituen emakumea da mendizalea ▶ 2



Edurne Pasaban. L.MONTES



'Labourd 1609' film luzea ari dira grabatzen eskualdeko gazte batzuk

TOLOSALDEA ▶ Eneko Aritza (*Orreagako gudua*) film laburraren arrakastaren ondoren, Eneko Aritzaren Lagunak taldea film luzea ari da grabatzen: *Labourd 1609*. 2006ko uztaila arte luzatuko da Inkisizioari buruzko filmaren grabaketa. Proiektu irekia dela azpimarratu du talde honek. HITZA ▶ 6

LARRAUL ▶

Hezkide Eskolaren etxea berreskuratzen ari dira 15 gaztetxo

Ondarea zaintzea eta elkarbizitza bultzatzea dira bi helburuak ▶ 4

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **BETI ALAI jatetxean** 4 lagunentzako otordu eder bat zozketatuko dugu



Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20
Errearteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

GIZARTEA ▶

Arantzazuko santutegira erromesaldia hilaren 31n

Tolosatik abiatuko dira eta bazkaria egingo dute; txartelak 16 eurotan eros daitezke

I. ETXEBESTE

Urteroko moduan, Arantzazuko santutegira erromesaldia antolatu dute San Frantzisko elizako arduradunek hilaren 31rako. Azpeitiara iristean, bazkaria egingo dute erromesaldian izena ematen dutenek, eta antolatzaileek azaldu dute hara autoz joaten direnek ere izango dutela aukera erromesen bazkarian parte hartzeko. Erromesaldian eta ondorengo bazkarian parte hartzeko San Frantzisko elizan eman behar da izena egunotan. 16 eurotan eskuratuko dituzte interesatuek txartelak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))**Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
 - Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispensa: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

MENDIA ▶

Nanga Parbateko gailurrera igotzea lortu du Pasabanek

Hainbat saiakera egin ostean, atzo goizean lortu zuen helburua; horrenbestez, munduan zortzimilako gehien igo dituen emakumea da mendizale tolosarra



Edurne Pasaban, TVE telebistako *Al filo de lo imposible* saioko espedizioko kideekin, hirugarren kanpalekura heltzeko bidea egiten. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Edurne Pasaban mendizale tolosarrak Nanga Parbateko (8.125 metro) gailurrera igotzea lortu zuen atzo—Euskal Herrian 10:00ak inguru zirenean zabaldu zen berria—, eta, horrenbestez, munduan zortzimilako gehien igo dituen emakumezkoa da. Espainiako TVE telebistako *Al filo de lo imposible* saioko espedizioko beste kide batzuekin lortu zuen atzo Pasabanek bere zortzigarren zortzimilakoa. Hain zuzen ere, Pakistanen goizeko bederatzia zirela heldu ziren espedizioko lehen kideak gailurrera: Silvio Mondinelli, Ivan Vallejo—hamar eta hamaika zortzimilako dituzte lortuta, hurrenez hurren—, Edurne Pasaban eta Hassan Jan sherpa izan ziren iristen lehenak. Handik bi ordua heldu ziren Esther Saba-dell kataluniarra eta Marianne Chapuisat suitzarra.

Sebastian Alfaro *Al filo de lo imposible* saioko zuzendariaren hitzetan, «gogorra» izan zen igoera, «elur asko zegoelako metatuta». Eguraldi kaskarra zela eta, eta, batez ere elurte handiengatik, hainbatetan utzi behar izan dituzte azken egunetan bertan behera Edurne Pasabanek eta haren espedizioko kideek gailurra zapaltzeko egindako saiakerak.

Nanga Parbat gainera iristeko aurreneko saioa orain astebe-te, hilaren 13an, egin zuten, baina bertan behera utzi zuten ahalegina eguraldia oso txarra zelako. Eguraldi iragarpenek beste igoera bat prestatzeko aukera eman zietela adierazi zuten, ordea, mendizaleek, tolosarraren web orrialdearen bitartez. Hala, larunbatean berriro ekin zioten igotzeari, eta, azkenean, atzo goizean lortu zuten helburua. Hilabetez eguraldiak hobera egiteko zain egon ostean, lortu ere.

Joan den larunbatean abiatu, eta igandean lortu zuten TVEko *Al filo de lo imposible* saioko espediziokideek 4.200 metrora zegoen oinarritzko kanpalekua eta 6.100 metrora zegoen bigarren kanpalekua banatzen dituen Kinshoffer horma zeharkatzea. Hurrengo egunetan behar izango zituzten kanpadendak, gasa, kamarak eta filmaketa ekipoa zeramatzaten soinean. Espedizioko kideek astelehenean lortu zuten hirugarren kanpalekua 6.500 metrora jartzea, eta, hurrengo egunean, lau orduko igoeraren ostean, Bazzin arro-ra heldu ziren, atzo Nanga Parbat zortzimilakoaren gailurrera iristeko. Mendizale tolosarrak igoera «espero baino luzeagoa eta gogorragoa» izan zela zioen atzo Euskadi Irratiari eskai-

nitako elkarrizketan, eta goizeko ordubatean, laugarren kanpalekutik abiatu zirenetik 07:45era, gailurra zapaldu zuten arte zortzi ordu behar izan zituztela «mendi maldatsu eta zuzena» igotzeko.

Oinarritzko kanpalekura

Munduko zortzigarren mendirik garaiena da Nanga Parbat, eta igoera zailakoa dela diote adituek. Horixe esan zuen atzo Edurne Pasabanek ere, «oso luzea, eta espero baino gogorragoa» izan zela gailurrera heltzea: «Hotza egin du igotzen ari ginenean, eta kostatu egin zaigu helburua lortzea».

«Luzea» iritzi zion tolosarrak jaitsierari ere. «Beroak harripatu gaitu behera gindoazela, eta pisutxua egin zaigu laugarren kanpalekura heltzea». Hala ere, «oso-oso mendi polita» dela zioen Nanga Parbat buruz galdetuta, eta «igoera polita» egin zutela: «Azken unera arte elurrez beteta zegoen, eta azken 200 metroetan arroka artean ibili gara kranpoiak kenduta». Atzorako hirugarren kanpalekuraino jaitea zuten aurreikusita *Al filo de lo imposible* saioko espedizioko kideek, baina laugarrenean pasatu zuten gaua azkenean. «Bihar [gaurkoaz] nahiko goiz aterako gara, eta behe kanpalekuraino

joango gara», adierazi zuen Pasabanek.

Iazko uztailaren, K-2ra igotzean oinetan izan zituen lesio larrietatik osatuta dagoela erakutsi du Edurne Pasabanek Nanga Parbateko gailurrera igota: izoztu egin zitzaizkion oinak, eta, ondorioz, bizpahiru behatzetako gihar ehuna galdu eta gero beste zortzimilako baten bila ere joango zirela iragarri zuten mendizale tolosarrak, baina Karakorumen dagoen Broad Peakera (8.046 metro) abiatuko diren ez zuten baieztatu atzo: «Jaitsiera ondo egin behar dugu lehendabizi, eta han gaudenean denon artean erabakiko dugu Broad Peakera igotzen saiatuko gareneko edo ez, aurretik zehaztutako datak aintzat hartuta, nahiko berandu baigabiltza».

Himalayara abiatu zenean Nanga Parbateko gailurra igo eta gero beste zortzimilako baten bila ere joango zirela iragarri zuten mendizale tolosarrak, baina Karakorumen dagoen Broad Peakera (8.046 metro) abiatuko diren ez zuten baieztatu atzo: «Jaitsiera ondo egin behar dugu lehendabizi, eta han gaudenean denon artean erabakiko dugu Broad Peakera igotzen saiatuko gareneko edo ez, aurretik zehaztutako datak aintzat hartuta, nahiko berandu baigabiltza».

Abuzturako beste proiektu bat du buruan tolosarrak. 4an Islamabadetik Moscurara joango da hegazkinez, han transmongoliano hartu, eta Ulan Batorretik, Mongoliako hiriburutik, Txinarako ibilbidea bizikletaz egiteko.

WU SHU ▶

Indarrakoak, Espainiako Wu Shu Txapelketako podiumean

Urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko hiru jantzi dituzte; Alvaro Felipe, Edurne Martinez de Trebiño eta Andrea Sanchez, «ikusgarri»

LEIRE MONTES

Maila bikaina erakutsi dute, beste behin, Indarra Kirol Elkarteok. Espainiako Wu Shu Txapelketan aritu dira, Euskadiko selekzioarekin, eta podiumera igotzea lortu dute. Urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko bat jantzi dituzte euskaldunek.

Andrea Sanchezek, Edurne Martinez de Trebiñok eta Alvaro Felipek «ikusgizun aparta» eskaini zuten txapelketan. Sanchezek laugarren postuko diploma jaso zuen, Martinez hirugarren izan zen Nan Chuan-en eta bosgarren modalitate tradizionalan, eta Felipek urrezko domina bat eta zilarrezko bi jantzi zituen.

Indarra-ko Ander Otamendi, Iñigo Peñagarikano eta Olaia Altuna ere Euskadiko selekzioarekin aritzeko sailkatu ziren, baina arrazoi pertsonalengatik ezin izan zuten Espainiako Txapelketan jokatu. «Aukera aparta galdu zuten, ziur baikaude emaitza bikainak lortuko zituztela», azaldu dute taldeko ordezkariak.

Euskadiko selekzioarekin batera, Galizia, Madril, Valentzia, Balear Uharteak, Aragoi, Gaztela-Leon eta Katalunia lehiatu ziren, 260 bat kirolari denara. Honako modalitateetan aritu ziren: Nan Chuan eta Chan Chuan (esku hutseko for-



Euskadiko Selekzioko kideak, tartean Indarra elkarteok, txapelketa amaituta, garaikurrekin. HITZA

mak), Nan Dao eta Nan Gun (makila eta sablea), forma tradizionalak, Tai Chi eta Sanda (borroka K.O.-ra). 2008ko Olinpiar Jokoetan, Pekinen, Wu Shu-a olinpikoa izango dela gogoratu dute Indarra-koek.

«Pozik» dira lortutakoarekin, eta kirolari guztiak zoriondu dituzte. Era berean, Andrea Sanchezek egindako lana go-raipatu dute: «Lehendabiziko aldiz lehiatu da Espainiako Txapelketa batean, eta bikain

aritu da. 14 urte besterik ez ditu, eta kategoria gogorrenean eta senior mailako kirolarien kontra lehiatu behar izan du; hala eta guztiz ere, laugarren postu garrantzitsuan sailkatu da».

Udalaren eta Avia-ren laguntza ere eskertu dute: «Haien babesarik gabe oso zaila izango zen guretzat txapelketetan aritzea eta gure maila erakustea, taldearen baliaibide ekonomikoak urriak direlako».

Euskadikoan ere, primeran

Euskadiko Txapelketan ere emaitza onak lortu zituzten Tolosako Wu Shu kirolariak. Hain zuzen ere, han lortu zuten Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela.

Errenterian jokatu zen Euskadiko. Euskal Autonomi Erkidegoko taldeek zenbait modalitateetan neurtu behar izan zituzten indarrak; besteak bes-

te, Nan Chuan eta Chan Chuan esku hutseko modalitateak, Nan Gun (sablea) eta Nan Dao (makila) arma modalitateak, forma tradizionalak, eta Sanda borroka.

Kadete eta senior mailetan aritu behar izan zuten kirolariak. Bietan parte hartu zuten Indarra Kirol Elkarteok: Andrea Sanchez, Olaia Altuna, Iñigo Peñagarikano eta Ander Otamendi kadete mailan, eta Edurne Martinez de Trebiño, Alvaro Felipe eta Miguel Angel Suarez senior mailan.

Kadeteetan, Ander Otamendi txapeldun izan zen era tradizionalako proban, eta Iñigo Peñagarikano hirugarren sailkatu zen. Nan Chuan-en, bigarren izan zen Peñagarikano, eta hirugarren Otamendi. Modalitate berean, nesketan, Olaia Altunak irabazi zuen. Eta Chan Chuan-en, azkenik, Andrea Sanchez izan zen garaile. Emaitza hauekin Euskadiko Selekzioarekin aritzea ziurtatu zuten kadeteek, lehendabiziko aldiz.

Senior mailan, bestalde, Alvaro Felipek hiru modalitateetan irabazi zuen: Nan Chuan, Nan Gun eta Nan Dao. Chan Chuan-en Miguel Angel Suarezek lortu zuen lehen postua. Forma tradizionalen proban, Alvaro Felipe bigarren izan zen. Eta Nan Chuan-en, nesketan, Edurne Martinez de Trebiño izan zen guztietan onena.

«Eguneroko entrenamendua klubean egin dezakegu, baina txapelketetarako prestatzeko, zutoinik gabeko eta zabalera handiko areto baten premia dugu. Entrenatzeko lekurik ez dugunez, maiz kalean aritu behar izaten dute, hotzari eta eguraldi txarrari ahal duten moduan aurre eginaz». Kirolari guztien «adorea eta sakrifizioa» goraiatu ditu behin eta berriro irakasleak.

EKONOMIA ▶

Diru laguntzak kobratzeko sistema aldaketa hizpide, EHNE-k antolatuta

Bilerara deitu ditu kideak, bihar, 11:30ean, sindikatuaren egoitzan

L. MONTES

Diru laguntzak kobratzeko sistemaren aldaketa dela eta, Gipuzkoako EHNE-k (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) zenbait hitzaldi antolatu ditu kideentzat.

«Erne! ia baserriar guztioi dagokigun gaia da, eta ez Eusko Jaurilaritzako gutuna jaso

dituzte soilik. Gai garrantzitsua da, hainbat aukeren artean bakoitzak gehien komeni zaiona aukeratu behar izango duelako», azaldu dute sindikatuko ordezkariak.

«Hori dena azaltzeko eta kezak argitzeko asmoz» antolatuta ditu hitzaldiak Gipuzkoako EHNE-k. Bihar, ostirala, Tolosan egin dute deialdia: 11:30-

ean, sindikatuaren egoitzako bilera gelan (Nafarroa etorbidea 6, 2. pisua).

Bergaran (26an, Kultur Etxean, 11:30ean), Azpeitian (27an, 11:30ean, sindikatu zaharrean), Urretxun (28an, 11:30ean, Gune lokalean) eta Errenterian (29an, 11:30ean, Zamalbideko elizazpiko lokalean) ere deitu ditu bilerak sindikatuak.

MENDIA ▶

Mendi irteera eta arroil jaitsiera, Oargirekin

Bihartik astelehenera bitarte izango da; «lehenbailehen» eman behar da izena

L. MONTES

Oargi elkarteak mendi irteera eta arroil jaitsiera antolatu ditu. Bihar arratsaldean hartuko dute Tolosan Escarrillara (Huescako Pirinioak, Espainia) joateko autobusa. Etzi Midi d'Ossau mendia (2.884 metro) igotzea edo Gorge du

Soussoeou arroila jaista izango dute aukeran. Igandean, Balaitous (3.144 metro) igotzea edo Gorge du Broset arroila jaista. Eta astelehenera, azkenik, Gorge du les Chutes arroila jaitsiko dute, etxera itzuli aurretik. Izen-ematea «lehenbailehen» egin behar da, 637 83 03 80an.

LARRAUL ▶ GAZTERIA

INKESTA ▶ Zer moduzko esperientzia izan da auzolandegian aritzea?

IÑIGO AGIRRE

DONOSTIA



«Lehen aldia da auzolandegiara etortzen naizela eta oso ondo ari naiz pasatzen. Lehen beste udalekuetara joaten nintzen, baina hau ezberdina da. Goizean lana egiten dugu eta arratsaldeetan beste hainbat jarduerak egitera joaten gara».

ASIER LARRAÑAGA

BEASAIN



«Esperientzia harri-garria ari da izaten. Auzolandegian gauden artean sortu den giroa ikaragarria da. Lagun talde ederra osatu dugu eta lana egiteaz aparte, pertsona bezala hemendik asko ikasita aterako gara iruditzen zait».

ELOI LARRAÑAGA

ZESTOA



«Auzolandegian gauden guztion artean sortu den giroa oso ona da. Hain lagun talde ona osatzen dugunez, gauetan hitz egiten aritzen gara eta lo gutxi egiten dugu. Baina hurrengo goizean gustura joaten gara ingurumenaz gozatzera».

KARLOS TURRILLAS

DEBA



«Esperientzia oso positiboa ari da izaten niretzat. Lagun asko egin ditut hemen nagoenetik eta pena emango dit auzolandegian. Goizetan lanean aritzen gara eta arratsaldeetan ingurumenaz gozaten dugu edo hondartzara joaten gara».

MALEN ALKAIN

HONDARRIBIA



«Oso esperientzia ona izaten ari da auzolandegiko. Denok egin gara elkarren lagun eta hori lanerako edo beste edozertarako orduan. Era guztietako jarduerak egiteko aukera izan dugu eta horrek gure arteko giroa ona izaten lagundu du».

Auzolana, inguruaz gozatzuz

Larraulgo Hezkide Eskola etxearen berreskuraketa lanetan ari dira hamabost gaztetxo Kutxak eta Aranzadi zientzia elkarteak antolatutako auzolandegietan



Larraulen, Hezkide Etxearen berreskuraketa lanetan ari diren gazteak fabxada margotzen. J. GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Badira hamar urte Kutxaren gaztekintzak eta Aranzadi zientzia elkarteak lehen aldiz auzolandegiak antolatu zituztenetik. Gerotik, urtero urtero, gazte ugari Gipuzkoako ondarearen berreskuraketa lanetan jardun dute. Duela hiru urte hasi ziren Larraulgo Hezkide Eskola etxearen za-

harberritze prozesuarekin eta aurreko urteetan bi fatxada margotu ondoren, aurten hirugarren baten txanda izan da.

Uztailaren 4an elkartu ziren Larraulen auzolandegian jardun duten hamabost gazte gipuzkoarrak. Aranzadiko kide den Mikel Errazkinekin hitzetan «beste urteetan neska kopurua mutilena baino altuagoa izan da, baina aurten gauzak

aldatu egin dira». Izan ere, hamaika mutil eta lau neskez osaturik baitago Larraulgo auzolandegia. Hamabost eta hamasei urte bitartean dituzten neska-mutil horiek, eguna bi zatitan banatzen dutela zehaztu du Errazkinek: «Lehenbizi, goizean, etxearen berreskuraketa lanetan eta ingurumen hezkuntza aritzen dira 9:00etatik 13:30era. Ondoren, bazka-

lostean, era ezberdinetako jarduerak egiten igarotzen dute arratsaldea». Aisialdi honen barruan sartu ditu Errazkinek espeleologia, raftinga, hondartzara joatea...

Helburu ezberdinak

Uda partean antolatzen den ekimen horrek, helburu jakin batzuk ditu. Alde batetik, Gipuzkoako ondarea berreskuratzen saiatzen dira bertan parte hartzen duten gazteak. Errazkinek zehaztu duenez, «hainbat tokitan antolatzen ditugu auzolandegiak gazte gehiagok parte hartu ahal izan dezan eta ondare gehigo berreskuratu dadin». Bigarren helburua, gazteen arteko elkarbizitza bultzatzea eta uztartzea da eta horretarako egiten dira arratsaldeetako jarduerak. Bestalde, gazteen artean ingurumen hezkuntzaren baloreak sartzen ahalegindu dira. «Jomugatzat jarri ditugun hel-

buru guzti hauek betetzea lortu dugu», baieztatu du Errazkinek.

Auzolandegi hauetan aritu diren gazteek, beste guztien gainetik zerbait nabarmendu nahi izan dute. Taldean sortu den giro bikaina izan da Uda Gaztea izeneko proiektu honetan parte hartu dutenek gehienbat azpimarratu dutena. Errazkinek ere hitz onak besterik ez ditu izan gazte taldearentzat: «Hasi-eratik elkarrekin ondo komunikatu dira gazteak eta horrek sekulako giroa sortu du. Hori horrela izanik, askoz ere errazagoa izan da guretzat ere gazteekin lan egitea eta urtean ere ez da inongo haserre edo hausturarik izan; oso talde homogeneoa izan da».

Larraulen bakarrik ez

Aranzadi eta Kutxaren ekimenez udaro abian jartzen diren auzolandegi hauek ez dira Larraulgora soilik mugatzen. Gipuzkoako beste hainbat tokitan ere ari dira gazteak ondarea berreskuratzeko lanetan. Esate baterako, Aian beste neska-mutil multzo bat ari da lanean. Hain zuzen ere, Larraulgo etxearen berregituratzea amaitu ondoren, bertan zeuden gazteak Aiakoengana joan ziren euren eginbeharreran laguntzera.

Larraulgo auzolandegiaren balantze orokor bat eskatuta, Errazkinek «oso positibotzat» definitu du. «Horrelako gazteekin gustura aritzen da edonor lanean. Nire ustez guztia oso ondo joan da eta gure artean familia bat osatu dugu. Askori pena handia eman dio berriro etxera itzuli beharrak». Beraz, aurten parte hartu duten asko datorren urtearen zain izango dira jada, berriro auzolandegian jardun eta beste lagun talde handi bat ezagutzeko gozoz; eta aurten joan ahal izan ez duenak, hurrengo urtean izango du aukera.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohita.nfo

KULTURA ▶

'Labourd 1609' ari dira filmatzen

2006eko uztaila bitarte ariko dira
Inkiszioari buruzko pelikula filmatzen

IÑIGO TERRADILLOS

Eneko Aritza (Orreagako gudu) film laburraren arrakastaren ondoren egileak beste proiektu batean murgilduta dabilta orain. Film laburraren ideia asko gustatu zitzaion eta talde berri bat sortu zuten Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza eta kultur taldea, hain zuzen, eta pelikula luze baten filmaketari ari dira lanean.

Filmak Inkiszioa hartuko du oinarritzat. Ipar Euskal Herriari, Lapurdin kokatuko da, XVII. mende hasieran, Lancre inkisidorea etorri zeneko garaian. Inkiszioaren izenean eta sorginkeria leporatuta 600 pertsona baino gehiago erre zituen. Horren harian, gazte talde batek aparteko gizarte bat egingo du, zergetatik eta orohar Inkisiziotik at bizitzeko helburuarekin. Talde horren barnean maitasun istorio bat sortuko da... Izena, berriaz, *Labourd 1609 (Inkiszio plana)* izango da.

Leku desberdinetan aritu dira orain arte lanean: Iruñeko Labiano zalditegian, Mirandolako burdinolan, Lizartzako belaze batzuetan, Algortan eta lan taldearen asmoa Euskal Herriko txoko gehienetan filmatzea dela azaldu dute. Materialari dagokionez, Donostiako Larrotxene kultur etxean utzi

dieta filmaketarako materiala, eta film laburrean erabilitako arropa erabiliko dute luzean ere.

Orain atsedendia hartuko du lan taldeak abuztuaren amaierarte eta irailean berriro ekingo diote lanari. Halaber, datorren urteko uztailan filmaketarekin amaitzea espero dute, eta ondoren zer gertatuko den ez dute argi, hau da, pelikula amaitu eta jendeak ikusi ahaliko duen ala ez.

Proiektu irekia

Film laburraren moduan, lagunarteko proiektu bat izatea nahi dute film luzea ere, beraz edozeinek hartu dezake parte nahi duen eran. Gero eta jende gehiago dago taldean eta guztiak proiektu berriarekin ilusionaturik daude, baina aurrera egin ahal izateko era guztietako laguntzak behar dituzte, bai diru aldetik, bai eta material aldetik ere, film luze bat egiteak gastu handiak izaten baititu.

Laguntza eskaini nahi duenak www.enekoaritzarenlagunak.net web orrian aurkituko du harremanetan jartzeko bidea bai eta filmari buruzko datuak ere.



Labourd 1609 (Inkiszio plana) pelikulako eszena bat filmatzen. HITZA



Donostiako Larrotxene kultur etxeak utzitako bata cam kamerekin ari dira filmatzen. HITZA



Pelikula filmatzen jardun eta gero atsedenerako tartea ere izaten du lan taldeak. HITZA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Eguneko albisteak, egunkarian argitaratutako zorian agurrak, tren, autobus eta farmazia zerbitzuak, agenda... horiek eta beste hainbat gauza ikusi ahal izango dituzu eskualdeko euskarazko egunkarian. Zure iritzia emateko aukera ere eskaintzen dizu HITZak; www.tolosaldekohitza.info webgunean sartu, eta proposatzen diren gaien inguruko iritzia eman. Hau da jarrita dagoen inkestako galdera: Nolako oporrak dituzu gustuko?



Lan taldea Iruñeko Labiano zalditegiaren kanpoaldean. Filmerako zaldiak lortu zituzten bertatik. HITZA

ARESO ▶ GIZARTEA

Denborapasa ederki asko dabilz umeak

Egunero elkartzen dira eta mota askotako ekintzak egiten dituzte

JAIONE ASTIBIA

Eskolatik oporrak hartu zituztenetik, egunero elkartzen dira Aresoko umeak, aisialdi tailer-reetan eta goiz horretarako prestatuta duten ekintzan, buru-belarri aritzen, atzokoan egiaztatu ahal izan zenez.

«Duela bi urte hasi zen tailer hau. Iaz ez zen izan, baina aurtentzen, berriz ere. Guraso Elkarteak esan zigun hasiko ginen eta horrela berreskuratu dugu», argitu zuen Oihana Nietok. Bera eta Ione Lozano dira, begirale lanetan ari diren bi gazteak. Horrela, asteregunetan, 11:00etatik 13:00etara bitartean askotariko ekintzak egiten dituzte, bertara biltzen diren 13 umeak. «Batzuetan bakarren bat ez da etortzen, baina gehienetan denak etortzen dira», adierazi zuen begiraleak. «Tiki-kienak 3 urte ditu eta helduek 13; guztiak bertakoak dira, bizpahiru «hemen bizi ez badira ere, gurasoak bertakoak dituzte eta, uda hemen igarotzen

dutenak dira», argitu nahi izan zuten.

Atzo, esaterako, jolasak egin zituzten Trinkete atzean, begiraleetako bat falta zelako, esan zuten, eta bakoitza nahi zuen jokoa aritu zen, batzutan zaharrentsuenek txikixegoei erakutsiz, eta bitxia zirudien arren, mutikoak eta neskatok talde desberdinetan, beraiek hala nahi zutelako, noski.

Baina, bestela hori eta beste ekintza desberdinak egiten dituzte: jokuak, eskulanak... Eta ateraldiak ere egiten dituzte: «Errekara joaten gara eta han jolastu; edo igerilekura ere joan gara. Leitzara, goiz pasa; edo mendira ere bai, eskursioak egiten ditugu: otarteak eta hartu, eta hemen inguruko lekuren batera... Horrelako ekintzak egiten ditugu», zehaztu zuten.

Umeak gustura asko zeuden. Oso ongi ezagutzen dute elkar, ikasturtean batera egoten baitira, eta begiraleak ere bai. Lagun artean, beraz.



Aisialdi tailerretan herriko ume gehientsuenak hortxe biltzen dira, bi begiraleekin. JAIONE ASTIBIA



Batzuk jolasean, besteak eskulanetan, nahi zutena eginez igaro zuten atzoko goiza. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Tailerrak bertan behera, parte-hartze ezagatik

J. ASTIBIA

Herenegun eguerdian ziren hastekoak Gozamenez programaren baitan, sexualitate tailerra eta laztan tailerra. Baina «bertan parte hartzeko inor ez zenez apuntatu», antolatzaileek azaldu zuten, «bertan behera» gelditu ziren ekintza hauek.

Horixe da Gizarte Zerbitzuko Prebentzio Programako bulegotik aditzera eman zutena. «Goizuetan bai, eginen ditugu, han jendea prest dagoelako, baina hemen, harrituta gaude, hain gai interesgarriak izanik, nola ez den aterak», zioten.

PILOTA ▶

Olazabalek Antiguakoan gaur jokatu du lehena

J. ASTIBIA

Olazabalek gaur du Antiguako Txapelketako bere lehen partidua aurtengoz. Betelu atzeko koadroetan lagun duela, Gonzalez-Lopez izaniren dituzte aurrez-aurre, 22 urtez azpiko mailan.

Bestalde, Errenterikoan, finalean aurkariak zein izanen dituzten badakite Aurreko ordezkariek. Gazteen mailan, Iriartek, aurrean Mendiluze lagun, Azpeitiko Larrañaga-Uzkudun izanen dituzte aurkari; seniorretan, Bengoetxeak eta bere bikoteak, Dominguez-Iparragirre, azken hau ere leitzarra izaki.

LEITZA ▶ EHIZA

Isileko ehiztariak, bat Leitzakoa, salatu dituzte, beda garaian ehiza egiteagatik

Gainera debekatutako armak omen zeramatzaten salatuek

J. ASTIBIA

Nafarroako Gobernuko iturrien arabera, «uztailean zehar», Polizia Foraleko agenteek Arazuriko beste herritar batekin batera, Leitzako FG.C.A., 52 urtekoa bera, salatu egin dute ustez «herrian bertan, beda garaian isileko ehizean eta debekatutako armekin ari zela harrapatuta».

Iturri horiek zehazten dute, salaketa hauek uztailaren 7 eta 17an egin omen zituzten, «ekintza ez-legezko hauek egin direla ezagun den lekuetan isileko ehiztariak harrapatuko», egindako operazioan.

Dirudienek, salaketa bikoitza izan dute ustezko isileko ehiztari horiek: «beda garaian ehizan aritzea» alde batetik, eta «gainera, debekatutako armak» erabiltzeagatik bestetik: «bi rifleek mira teleskopikoa» omen zeramaten, «batek isilgailua ere bai», eta «libre den baino kargagailu handiagoak, 8 eta 10 balatakoak», 2 besterik eraman ezin daitezkeenean.

Salaketak Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamendura eta Espainiko Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzara igorri omen dituzte, isunak erabaki eta ezar ditzan.

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Fabada, estaldura eta aldamio montaian aditu. Bere autoa duena. 620 80 01 86. **Josebo.**
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933.

EROSGAI

Bizikleta estatikoa. Bizikleta estatiko bat erosiko nuke. 699 18 61 85.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 21a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

17

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. San Inazio jaietako zikiro jaterako txartelak salgai Arandia jatebtxean.

Anoeta. Fagor gida gastronomikoa mintegia emango dute KZgunean 10:00etatik 11:00etara. Tutorea 9:00etatik 13:00etara izango da.

Anoeta. Mus txapelketa antolatuta dute 23:00etan Gaztebtxean.

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkartetik jakinarazten dute podologoaren bisita eguna uztailaren 30ean izango dela. Aurrez ordua hartzeko elkartera jo beharko da.

Bidegoian. KZgunean tutorearen bisita izango da 16:00etatik 20:00etara.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96 telefonora berriro tramitatzeko.

Tolosa. Baserritarrentzako dirua laguntzak kobratzeko sistema aldatetaz bilera. Bihar 11:30ean EHNERen egoitzan.

Tolosa. Paleta txapelketako partiduak 18:30etik aurrera Berazubín: Balerdi-Artola Eizmendi-Arandiaren aurka, Landa-Huegun Agirre-Egilazen aurka eta Otermin-Goitia Yugueros-Aldazabalen aurka.

Tolosa. Kirol elkarte eta klub egiturak garatzeko udal diru laguntza arruntak eskatzeko epea uztailaren 31n bukatzen da. Informazioa, udaletxeko erregistroan.

Tolosa. Kolonbiako balet folklorikoa Euskal Herria plazan 22:30ean.

Villabona. Santiotan, hilaren 28an, Txermin ikastolan ingo den jubilatuen bazkarirako gonbidapena jaso daitezke Biltoki elkartearen bihar arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre (FM 207, FM 101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
19:00. Errepublikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jolasean frexko-frexko

AIZTONDO ▶ Aduna, Alkiza eta Larraulgo haurrek aktibitate ugari dituzte udaleku irekietan: piraguismoa, sanferminak...; atzo Oiartzunera joan ziren



Uztailaren 14ean eta 15ean Zuloaga txiki izan ziren Aiztondoko haurrak. HITZA



Piraguismo ikastaroan ikasitakoak Pasai Donibanen itsasoan praktikan jartzeko aukera izan zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Alkiza, Aduna eta Larraulgo haurrak zorionez dira uda honetan. Ez dute aspertzeko betarik. Nahiko jolas eta denborapasa daukate, gainera frexko-frexko.

Aiztondo zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten herrietako haurrak Uda Kanpaina barruan piraguismoa egin dute egun hauetan. Hiru herrietako 17 haurrek eman dute izena aurretik eta «oso gustura» ibili omen dira, antolatzaileek diotenez. Azken egunean Pasai Donibanera joan ziren, ikastaroak ikasitakoak itsasoan praktikan jarri ahal izateko.

Guztira, aurtengo udaleku irekietan 52 hurrek parte hartu dute, Alkiza, Larraul eta Adunakoak, hain zuzen.

Eskualdeko beste herri askotan bezala, uztailaren 7an, sanferminak ospatu zituzten Larraulen. Jantzi zuri eta painelu gorriak soinean zituztela, ederki pasatu zuten xenen aurrean. Uztailaren 14an eta 15ean Tolosako Zuloaga txiki aterpean gaua pasatzen egon ziren. Egunean zehar nahiko aktibitate eta jolas izan zuten bertan.

Atzo bertan beste irteera bat izan zuten, Oiartzunera joan ziren kasu honetan. Hango tren berdean ibili ziren eta Juan Mari Beltran musikariak zuzentzen duten Herri Musikaren Museo interesgarria bisitatu zuten. Euskal Herriko soinu tresna bilduma ederra ikusi zuten eta bere jakinmina asetu zuten makina bat galdera eginez azalpenak eman zizkien arduradunari.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ekain Gibelalde Artola.
Gaur urte bat. Zorionak, Pottoko.
Familia guztiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!